







Zure logela aukeratzekoan altzaria ez da garrantzitsuena. Koltxoi egoki bat aukeratu.  
**Gure erakusketa bisita ezazu!**



**15  
URTEKO  
BERMEA**



TEMPUR koltxoi eta burkoak gorputzaren formara egokitzen dira beharrezko lekuetan ezinbesteko sostengua eskainiz.




**10  
URTEKO  
BERMEA**

Dunlopillo-ren Talalay latexeko betegarriarekin ez duzu ohean izerdituko. Koltxoiaren fabrikazioan gorputzaren hezetasuna mantentzen laguntzen duten materialak soilik erabiltzen ditugu. %50 BERO GUTXIAGO EMATEN DU



**5 URTEKO  
BERMEA**



funda aldagarria  
30° tan garbikorra



Latexeko xfla bi aurpegietan. 5 dentsitate ezberdinekin. Akaroen, onddoen eta bakterien kontrako Maestersan tratamendua kanpoko zorroan.

**LAGUNAK**

12 hilabetetan ordaindu dezakezu

San Roke kalea, 20 - Tel: 943 74 44 57 - ELGOIBAR

[www.textillagunak.com](http://www.textillagunak.com)



ALAITZ VIVES



UNAI VILLENA

## ZOZOAK BELEARI...

“Guía para chicas: cómo construir tu propia imagen”. Jolas bat proposatzen dizut, Unai. Zer da? a) estetika klinika baten promoziorako lema b) emakumea izan nahi duen gizonezkoari zuzendutako gida c) erropa denda baten iragarkia.

Nafarroako Gobernuak neskatoei zuzenduta argitaratu duen gida da. Zertarako? arduradunaren hitzetan, interes matxisten arabera disenatutako emakumezkoen estereotipoei aurre egiteko.

“4 kilo gutxiago hamabost egunetan”... “zatoz superwomanen klubera”... “gora ipurdi hori!”... “tripa txontxor lisatua 10 sesiotan”... ba al dakizu zertaz ari anizen Unai? Ez dut hitzik alperrik galduko horrelako mezuak luzatzen dituztenak “satanizatzen”.

Mezu horietan ezkututzen dira XIX mendeko emakumeon irudi estereotipatu sexista berriak. Ba al dakizu ze aholku eman zioten ospe haundiko aldizkari batean 4 “adituk” haurdun geratu ostean kalean utzi zutela salatzen zuen emakumeari? Beste lanpostu bat bilatzeko. Ez zuela pena merezi horrela tratatzen zuten enpresan geratzerik. Horra hor “emakume berria”. Etxerantza bueltatzen dena. Ez ditut erabaki hau hartzen dutenak kritikatu, noski ezetz, baina, zer pentsatua eman zidan “aholkua”.

Nolakoak dira mugaz bestaldeko estereotipoak? Eta adituk? Gizonezkoek ba al duzue estereotipoak gainditzeko giden beharrik?

«Estereotipoak gainditzeko giden beharrik ba al duzue gizonok?»

ALAITZ

«Gizonezkoari matxista izatea eskatzen digu gizarteak»

UNAI

Alaitz; oraingoan ez didazu gai makala jarri! Duela pare bat egun irakuri nuen zuk idatzitakoa eta ordutik hona buruari bueltaka ibili naiz ondorio garbirik atera ezinik. Polita da, bere itxura zaintzen du, azkarra da, langilea etxetik kanpo eta baita etxean ere, emazte eta ama ona... hori eta beste askotxo betetzea eskatzen zaio gaur egun emakumeari. Emakumezkoen estereotipoak askoz ere nabarmenagoak dira gizonezkoenak baino. Nola aldatu daitekeen hori? Emakume bakoitzak berarekin bat ez datorren irudi horren aurrean matxinatu beharko luke. Haurdun geratu ostean kalera bota zuten norbait ezagutzen dut nik. Hark ez zion inongo aldizkari sasi-adituri aholkurik eskatu; enpresa salatu zuen berehala, kitto. Ustez berdintasunezkoa den gizarte hau erabat injustua da oraindik eta bere eskubideak lortzeko borrokan jarraitu beharko du emakumeak etengabe. Ingurukoei galdetuz gero, inork ez dizu onartuko matxista denik, baina matxismoa ukalezina da. Gizonezkoari matxista izatea eskatzen digu gizarteak gure gizentasuna indartzeko. Kontraesana al da hori? Edo gizonezkoaren estereotipoa bete behar izatearen ondorioa? Gizonezkoak estereotipo horren aurrean matxinatu beharko genuke. Horregatik pentsatzen dut baietz, estereotipoak hausteko gidaren bat ez litzazukeela batere gaizki etorriko. Estereotipoak, hausteko eginda daude!



GUTXIK IKUSTEN DUTE ZER GAREN, DENEK, ORDEA,  
ZER IRUDIKATZEN DUGUN



Niccolo Machiavelli

## Denok berdinak garela?!

Aita sumatu nuen amari honelako zerbait esaten: "Jaiotzerakuan danok berdinak gerala esaten debe, baina hil eta gero ez behintzat!". Aita Santua hil ondorengo telebista-irudiei begira geunden hirurok. Aho zabalik, ikusten genuena sinesteko ahaleginak egiten. Aitaren berbak entzun nituenean, duela urte batzuk Elgoibarko abade batek esan zidana etorri zitzaidan burura: "Hil eta gero danok gera berdinak, eta horregatik ezin da eliza barruan ezer berezirik antolatu hileta elizkizunetan. Kanpoan nahi dana, baina barruan ez". Konforme nengoen abadeak esandakoarekin. Izan ere, bizitzan zehar nahikoa diferentzia egoten da bizidunon artean, hil eta gero ere bereizketak

egiten hasteko. Baina, gustatu ala ez, abadeak esandakoaren aurrean, gure aitak arrazoia daukala uste dut. Hil eta gero ere, ez gara denok berdinak. Eta, bestela, erreparatu Aita Santua hil aurretik eta ondoren komunikabideek eskaini digutenari. Ez jaiotzerakoan, ez bizi garen bitartean, eta ezta hil ondoren ere, ez gara denok berdinak. Ez munduaren aurrean, ez eta Elizaren aurrean ere.

I.L. 15.370.726-x

## Larrosaren arantzak eta maitasunare penak

Kanta zaharrak dioen bezala:

"Ez dago larrosarik arantzarik gabe, ez dago amodiorik penarrikan gabe".

Nahiz eta arantzak eduki zoriekoera zu, larrosa eder hori,

larrosak arantzak bezala

maitasunak penak ditu

baina maitasunik gabe,

ezin gara bizi gu.

Maitasuna eta alaitasuna

jartzen dituzun hori,

zu zara larrosa, nahiz eta arantzak

eduki.

Ikasi dezagun gozatzen

maitasunaren penak,

arantzaren zitzadak

zaintzen ditugun bezala.

V.M.

E-POSTA

[barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com)



BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefono zkia**.

# [b]arren

Argitaratzailea:



Nafarroa enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR  
☎ 943 74 41 12 • Faxa: ☎ 943 74 37 04  
Publizitatea: ☎ 943 74 37 04  
E-posta: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com)

LAGUNTZAILEA Elgoibarko Udala ZUZENDARIA Jasone Osoro KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea PUBLIZITATEA Amaia Erkizia MAKETATZAILEA Jaione Unanue KOLABORATZAILEAK Uxue Alberdi, Mikel Comejo, Juanito Garasiza, Amaia Gorroategi, Imanol Laranaga, Ainhoa Lendinez, Jesus Mari Makazaga, Ainhoa Mendibil, Esther Gurubaxaga, Iban Urizar, Kokoa KE, Uruzuno, Unai Villena, Alaitz Vives ESAERA ZAHARRA Gotzon Garateren liburutik INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.300 ale LEGE GORDAILUA SS-1038/92 ISSN 1139-1855



Elgoibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria.



## ESKERTZA

2005eko martxoaren 30ean, 58 urte zituela hil zen

*Javier Azpiazu Lasaren* sendiak,

bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,

hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.







- Herritar batek esan digunez, **herri guztia pintadaz beteta dago**: "Hauteskunde garaian gaude, eta berriz ere herriko bazter mordoak pintadaz beteta daude. Aldarrikapenak egiteko beste modu asko daude, eta herria errespetatu egin behar da".

- Herritar batek esan digunez, **San Lorentzon ez dago zakarrontzirik**: "Jende ugari joaten da San Lorentzora pasiaran, edota umeekin egun pasa, eta ez dago zakarrontzirik. Aparkalekuan zabor kontenedore bat dago, baina ondo egongo litzateke eliza edo iturri inguruan zakarrontziren bat jartzea. Iturri ondoan badago zakarrontzia kokatzeko burdina, baina poltsa falta da. Udaberria iritsi da, eguraldia hobetzen hasi da, eta gero eta jende gehiago joango da San Lorentzora, eta ez da gehiegi kostatzen zakarrontziren bat jartzea. Eskerrik asko".

- Herritar batek esan digunez, **San Roke kaleko bukaeran BH Institutuko eskaileren parean, espaloia zeharo puskatuta dago**: "Nori tokatzen zaio ingurune hau konpontzea? aspalditik dago espaloia hiru puskatuta, eta bizilagunek behin baino gehiagotan jarri dituzte kexak, baina ez dute ezer egin. Bestalde, kalea aurrera jarraituz, aintzina traperia izandako lokala dago, BH Institutoaren patioaren kontra, eta goiko aldean dena zikinkeriaz beteta dago. Aurrerago jarraituz, fundizioa zegoen tokian ere, zabor mordoak dago. Ez dakit noren lana den hori garbitzea, baina dagokionak mesedez, zerbait egin dezala".



## TXALOAK

- Guraso talde batek zorionak eman nahi dizkio **Elgoibar BH institutuari 50 urte bete dituelako**: "Urte asko dira, lan ona egin duzue, eta jarraitu horrela beste 50 urtetan gutxienez".

Atal honetarako kexak, txaloak edo galderak helarazteko:

**E-posta:** [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com)  
 Nafarroa enparantza, 2  
 20870 ELGOIBAR  
 ☎ 943 74 41 12

## ESKERTZA



2005eko apirilaren 1ean, 71 urte zituela hil zen *Carlos Tesouro Muñoz* emazteak, seme-alabek, bilobek eta gainerako sendiak, bihotzez eskertzen dituzte jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.





## URRUZUNOREN Luma

### Tximeleta horiak

Udaberria iritsi dela ohartu naiz bart. Joan den astean, autoan nindoala, bat-batean, hiru tximeleta hori hegaldatu ziren nire auto gainetik. Aspaldiko irudi politenetakoa iruditu zitzaidan. Eguzkiak parez pare jotzen zidan eta une batez tximeleta hori haiek argi izpiak bailiran jaso nituen. Lanera nindoan. Zuetako zenbat joaten dira lanera irribarretsu? Izan ere, "gogozko tokian aldaparik ez", dio esaerak. Eta lagun artean? Asko ala gutxi, lagun bakarra nahikoa da, ona bada. Eguraldia ona edo txarra izan, ohetik altxatu eta zerua urdin ikusteko gai zara? Familiako kideekiko eta lagunekiko harremanean ere berdin gertatzen da, maitasuna eta laguntasuna ez ditu-eta odolak baldintzatzen. Esan nahi da, oztipoak gorabehera, egun ilun eta argietan, hegoaldean eta iparraldean, tximeleta horiak noiznahi eta nonahi hegaldatzen direla. Nahi izatea eta begiak zabalik izatea, horixe da kontua.

Ainhoa Lendinez




JESUS  
ASTIGARRAGA

DEPARKEL ELKARTEKO KIDEA

*Apirilaren 11n ospatuko da Parkinsonaren Mundu Eguna. Hori dela eta, Jesus Astigarragarekin izan gara. Bera DEPARKEL elkarteko kidea da.*

- **Zer da DEPARKEL?** Debabarrenako pertsonak osatzen duten parkinson elkarte da. Une honetan 15 gaixo eta beste 15 laguntzaile gaude. Halere, Deba barranean badakigu 200 gaixo daudela. Gure helburua da horiek guztiak ekartzea gure artera. Gure telefonoa 651364371 da.
- **Zer eskaintzen duzue?** Egoitza Eibarren daukagu, kiroldegian. Ekainean fisioterapia zerbitzua jarri genuen martxan eta logopedia, sikelogia eta masajea ere jarri nahi ditugu. Helburua gaixoen bizi kalitatea hobetzea da. Oso garrantzitsua da gaixoak ez geratzea etxean isolatuta, harremanek bizipoza ematen dute.
- **Aurrerakuntzarik eman al da aspaldian?** Bihar, hain justu, Mendaroko ospitaleko mediku batek hitzaldi bat emango du Miamin gaixotasun hau sortzen duen Dardarina izeneko gen-aren inguruan. Izan ere, parkinson gaixotasuna pestizidek eta drogen kontsumoak ere eragin ahal duten arren, batez ere genetikoa da eta 15 mota ezberdin daude. Dardarina horietako bat da eta Itziarren deskubritu dute orain gutxi.

### komikia



Kokoe 012

## [AKORDATZEN NAIZ]



**MIREN VALLEJO**

1923an jaioa

### «Pretensia»

**O**ndiok akordatzen naiz, metro baten barruan esango neuke, nun pretendiu zidan neri nobixuak. Hementxe Errosarixo kalia izan zan, Gabiñeko parian, maitzaren 3an, nere aman eguna nola zan, geratu jatan buruan. Pasau izan naiz bertatik, eta esan izan diot nere buruari, "hementxe pretendiu zidan".

Gauza politatik izaten ziran. Lagun bat etori zitzatan, eta esan zidan: "esan diit Pako halako orduan halako lekuan. Bera Errosarixo kaleko kallejotikan etorriko da, eta zu hemendikan, Gabiñeko aurretik (gasolinera bat zagan hor lehen)". Nere lagunak zaintzen zebeñ haura, eta egon giñan hainbeste denpora begira-begira, zain! Eta bestia, itxuria, kallejoian, zaiñ, ni noiz etorriko nitzan. Azkenian alkartu

giñan, eta esan zidan: "esan dizu luziak zeozer?", eta nik, "bai, zeozer nahi zenduala esatia". Eta berak: "pasiaran eta ibiltzen gara, baiña serixo hasiko gara". Lehenengo nobixua eta azkena! Nik 15 urte naukazen; berak, 18. 8 urte ibilli giñan nobixo, baiña tartian gerrara juan zan. Ebruan eta dana ibilli zan gerran. Gero, kartak eta kartak. Pena horixe daukat, kartak ez gordetia: karta bat ere ez daukat. Gero, Bitorixan egon zan denpora luzez, eta astero-astero etortzen zan nobixia ikustera. Eziñ baiña laztan bat eman. Pekatua zan! Ez jende aurian, ez ezkutuan. Haura zan sufrimentua haura! Desiatzen, eta eziñ eman! Zer, eta gero konfesatzerakuan abadiari ez esateko? Zer egingo ziguen ba? Eta zer kontauko giñon ba, ez genduan ezer ere egitten eta?

## [GURE BERBAK]

### Koloriak (eta 2)

Aurreko astian hasi nitzan kolorien berri ematen, eta gaurkuan amaituko dot. Esan bezela, esapide ugaritan erabiltzen dira koloriak, metaforikoki batzuetan, gorputzaren egoera bat deskribatuz beste batzuetan. Horretako batzuk batu nahi izan diitut aste bi hauetan:

- Gorri nagok (= zentimorik gabe nagok)*
- Gorritu egin dok Patxi, Miren ikusitta (= lotsatu)*
- Etorri diitut gure etsaixak, eta ointxe egun gori!*
- Esku zurikua dok Joxe (= esku fiñekua, lanetarako)*
- Zuri-zuri geratu zuan Miren (= zurbill)*
- Oiñ ez hadi zurikerixan ibilli, miñ egiñ eta gero! (= lausenguetan)*
- Illia urdinu jako Pakori (= illia zuritu)*
- Familixako ardi beltza don hori.*
- Horritu egin dok zihero hire laguna (= gaixo batek kolore txarra hartu)*
- Berdiagua dok Aitor, berdiagua... (= lizunkerixetan ibiltzen dana)*

*Jesus Mari Makazaga*

autonomoentzako eta mikroenpresetarako **mintegiak**



## Softwarea eta Aplikazio Informatikoak Alokatzeko Zerbitzuak

Teknologia azkar zaharkitzen da. Softwarea alokatuz gero, programak erosteko **kostu finkoek ahaztu eta ez duzu instalazio eta mantentze lanaz kezkatu beharrik izango**. Mintegi honetan, zerbitzu hauek kontratatzeke diru laguntza nola lor dezakezun ere erakutsiko dizugu.

Sustatzaileak:



**Deba Barrena**  
 apirilak 14  
**ELGOIBAR**  
 Máquina Herramienta BHI (IMH)

Ordutegia: **18:00-20:00**

Informatzeko eta izena emateko:  
**902 252 595**  
[www.miramondigital.com](http://www.miramondigital.com)  
[cursos@miramondigital.com](mailto: cursos@miramondigital.com)

Ardatzailea:



# ELGOIBARKO BH INSTITUTUA

*2004. urtean bete zituen 50 urte Elgoibar BH Institutuak, baina 2004-2005 ikasturtean zehar egin dituzte ospakizunak. Gaur, hilak 8, ospakizun nagusia egin dute Institutuko Areto Nagusian. Bertan, Institutuaren iragana, orainaldia eta etorkizuna erakusten dituen 15 minutuko bideo bat ikusi ostean, Mekanikaren sortzaileak omendu dituzte. Hamar izan dira omendutakoak: Amadeo Aizpitarte, Manuel Zabala, Luis Mari Iriondo, Vicente Elkoroiribe, Jesus Rementeria, Agustin Gorostiza, Pedro Gabilondo eta jadanik hilda dauden Jose Elkoroiribe, Pedro Jose Arriola eta Victor Zabala. Makina bat agintari eta pertsonaia esanguratsu hurbildu da Institutura, besteak beste, M.Anjeles Iztueta Hezkuntza sailburua eta Alberto Ortueta AFMko zuzendaria. Orriotan, historiaren laburpentxo bat bildu dugu.*

### HISTORIA APUR BAT

Gaur egun Elgoibar BH Institutua edo "Meka" moduan ezagutzen dugun erakundeak, 1954. urteko udan lortu zuen ofizialtasuna. Halere, 1899. urtean du jatorria, urte horretan Marrazketa Akademia inauguratu zen-eta, Udalak bultzatua eta Bernardo Ezenaroren zuzendaritzapean. 1916an, berriz, Teodoro Alkorta alkate zela, Marrazketa Akademia Arte eta Lanbide-Eskola bihurtu zen. Plaza Txikian zuen kokapena eta, bitxia bada ere, eskolak gabez ematen zituen egunez herriko neska-mutilen ikastetxea zelako.

1954an Industri Ikasketa Eskola bilakatu zen Lanbide Eskola. Amadeo Aizpitarte izan zen estreinako zuzendaria eta hasiera batean Plaza Txikiko lokaletan egon bazen ere, 1964an gaur egun ezagutzen dugun Mekaren eraikuntza inauguratu zen. Eraikuntza berriarekin batera, zuzendari aldaketa ere egin zen, Aizpitarteren lekukoa Juan Antonio Trincadok jaso zuen.

### ESKAINZA ZABALTZEN

1975an hasi ziren Administraritzza ikasketak eta bertan matriculatu ziren Ana Etxeberria "Señorita Anita"ren ikasle guztiak. 1976an, berriz, Madrilgo Hezkuntza Ministerioak baimena eman zuen klaseak euskaraz emateko eta aro berri horretan aritu ziren irakasle Itziar Konde eta Miren Vallejo.

Urteak pasa ahala, eta erronka txikiak gainditzen zitzutela ikusi zen neurrian, beste amets bati heldu zioten. Jose Rejo buru zelarik, 1987-1991 urteen buruan



sortu zen IMH, Makina Erramintaren Institutua. Honen helburua, metalgintzaren adarra bultzatu eta enpresen beharrei erantzutea zen. 1994an, berriz, Batxilergo Institutuko eta Lanbide Heziketako Eskolako Klaustroak ados jarri ondoren, ikastetxe bakar bezala hasi ziren lanean bi zentroak, HSAOL batxiler berriak eskainiz. Ereindako hazien emaitza izan zen, besteak beste, 2004an jaso zuten Euskalit erakundeak banatzen

duen kalitatearen Zilarrezko "Q" saria.

Halere, ikastetxea oraindik gazte eta bizirik dagoen seinalerik argiena da aurrera begira eskuartearen dituzten proiektuak. Horien artean aipatzekoa da Meka proiektua. Eskaintza zabaldu asmoz, Albituxin lursaila erosi dute zentro berri bat eraiki asmoz. 50 urte barru ere izango du zer ospatua herriko eta bailarako makina bat ikaslek ezagutu duen Elgoibarko Institutuak.





**IÑAKI KONDE** Zuzendaria

## «Eskualdean erreferente izango den batxilergo eleanitz sendoa eskaintzen jarraitu nahi dugu»

• **Zein dira 50 urte hauetan egin diren lorpenik handienak?** Gure herri eta eskualdearen beharrei erantzuteko gogoz hasi zen eskola hau eta horretan dirau orain ere. Ezinbestekoa ikusten dugu Euskal Herriaren berezko hizkuntza eta kultura aintzat hartuz eta landuz jokatzea. Teknologia berrietan ondo prestatuta, lan munduari erantzun egokia emateko grina ere betidanik izan dugu. Horren lekuko dira gure ikastetxean ikasi eta ardura handiko lanpostuetan diharduten asko eta asko.

• **Zein izan dira urrats esanguratsuak?** Batetik, Makina Erremintaren Institutuaren sorrera, enpresekin eta lan munduarekin sintonian Automozio arloan estatu mailan erreferente izatea. Bestetik, Administrazioa eta Osasun zikloetan lortutako lanbide aukerak eta, nola ez, LOGSE lege berriak ekarri zuen aldaketari erantzunez, Batxilergo Institutuarekin elkartuz, gure eskaintza zabaltzea. Europar proiektuetan erreferente gara eta 300 ikasle baino gehiago inplikatu ditugu. Gure lanaren errekonozimendua izan dira Kalitatearen ibilbidean zertifikazioak

lortu izana. Azkena, 2004ko abenduan lortutako zilarrezko Q deitzen dena.

• **Zer erronka dituzue aurrera begira?** Alde batetik, MEKA proiektuaren bidez, inguruko enpresen beharrei erantzuten jarraitzea da esku artean dugun lehen egitasmoa. Bestetik, irakaskuntzan euskararen tratamendua sakondu eta normalizatzea dugu helburu, bai hementxo eta bai etorkinak gizarte euskaldunarean integratuz. Gure eskualdean erreferente izan nahi duen batxilergo eleanitz sendo bat eskaintzen jarraitu nahi dugu.



**LUIS M<sup>o</sup> IRIONDO**  
**AGUSTIN GOROSTIZA**  
**VICENTE ELKOROIRIBE**  
**MANUEL ZABALA**  
 Sortzaileak

### «Irakasle gazteak ginen, 21 urtetik beherakoak»

• **Nola sortu zen “Mekanika”ren beharra?** Gure begiekin ikusi genuen, irakasle denok tailerlean lanean arituak baikinen. Eskola nazionaletatik ateratzean akademia bat edo beste bakarrik zegoen eta ikasle edo pintxe bezala sartzen ziren gazteak enpresetan. Industria indar asko hartzen hasi zen garai hartan eta kualifikatutako langileak behar zituztela ohartu ginen.

• **Zer izan zen gogorrena?** Lan asko egin behar izan genuen has-tapenetan. Garaiko alkateak, Rezolak, asko lagundu zigun, “ekarri zerbait prestatuta eta nik bultzatuko dut” esan zigun. Eibarko Ameria Eskolan ikasiak ginen eta ispilu moduan hartu genuen. Forma hartzen joan ahala enpresak ere inplikatzeko hasi ziren. Bestalde, behar bezalako heziketarik gabeko irakasle gazteak ginen, 21 urteren bueltan genbiltzan, eta gure adineko lagunak edo zaharragoak genituen ikasle. Eskerrak gaur baino errespeto gehiago sortzen zutela irakasleek.



**JESUS BILBAO**

Ikasle ohia  
 Maerholding (GMH)  
 Taldeko zuzendaria

### «Lanbide heziketa da formakuntza lortzeko modurik onena»

• **Ze oroitzapen dituzu Mekanikaz?** Danak onak, nire historia pertsonalean oso garrantzitsua izan da. Bertan ikasi genuenok izugarriko zortea eduki genuen, oso ondo antolatutako eta zuzendutako eskola aurkitu baikinen. Irakasle taldea aparta zen. Lanerako deia eskolaren bitartez jaso nuen.

• **Gazteak animatuko al zenituzke lanbide heziketak egitera?** Lan egin eta aldi berean ikastea formakuntza osoa lortzeko formalarik egokiena da. Dena dela, urte askotan mesprezatuta egon dela ikusi dut. Akats bat zela iruditzen zitzaidan, baina nola sartu hori buruan une horretan! Bakoitzaren ahalmena, gaitasuna eta bokazioa kontutan hartu behar dira, baina beti goraipatu eta gomendatu izan dut lanbide heziketa.

## [ PROTAGONISTA ]



**Josu Mujika**

Gipuzkoako Dantzari Profesionalen Elkarteak egitarau zabala antolatu du apirilaren 29an ospatuko den Nazioarteko Dantza Eguna ospatzeko. Hilabete osoan zehar ekitaldi desberdinak egingo dituzte, eta egunean bertan, Donostiako udaletxean dantzari gipuzkoar bat sarituko da. Gizonetzkoa izango da, baina oraindik ez dute bere izena eman.

Josu Mujika Elkarteko lehendakariak dantzaren egoera zaila azpimarratu du: "Madril edo Bartzelona kenduta, estatuan oso zaila da dantzatik bizitzea, eta asko atzerria joan behar izaten dira".

## [ NOTIZIA ]

### 153.000 euro inbertituko ditu Udalak Kultur Etxe ingurunea berritzeko

**A**zoka Plaza atzeko zubi berria eraikitzeko obrak bukatu ostean, Elgoibarko Udalak Kultur Etxe ingurunea berrituko du. Udalak aurreikusitakoaren arabera, 153.000 euro inguruko kostua izango dute obra hauek.

#### Berrikuntzak

Gaur egun egoera nahiko kaxkarrean dago ingurune hau, eta Udaleko ordezkariak lehen bailehen aterako dute obra hauek burutzeko lehiaketa. Kultur Etxe atzean eraikiko den plazoletan egurrezko jarlekuak, mahaiak, zakarrontziak eta farolak jarriko dira. Bestalde, %8ko desnibela duen arrapala eraikiko da zubi hasieratik Udal Euskaltegira arte ezintasun fisikoren bat



duten pertsonak Merkatu Plazara joan ahal izateko. Azoka sarrerako eskailerak berdin utziko dira. Migel Anjel Mujika Hirigintzako arduradunak jakinarazi zuenez, plazoleta berria eta Merkatu Plazara sartzeko arrapalak udako operetarako bukatzea nahiko lukete.

## [ ZENBAKIA ]

# 1.150

Elgoibarko KZ Guneak 3 urte beteko ditu datorren apirilaren 16an, eta epealdi honetan, 1.150 lagunek eman dute izena bertan. Guztira, 126 ikastaro eta 146 mintegi eskaini dira. Sexuaren arabera emakumeak dira nagusi (%59), eta gutxien erabili dutenak 16-24 urte bitarteko gazteak izan dira (%3).

## asteko [ ARGAZKIA ]



Elgoibarko Udalak ibilgailu berriak erosiko ditu. Dagoeneko zaharkituta gelditu dira Udaleko ibilgailuak, eta 241.000 euroko inbertsioa egingo dute hauek berritzeko. Argazkian ikusten dugun bezala, garabi honek erreleboa behar du, eta horixe izango da Udalak egingo duen lehenengo aldaketa. Udaltzaingoarentzako hiru auto berri erosiko dira, eta gainontzean, furgoneta bat eta pick-up estiloko kamioneta garabia bat aipatu daitezke. Hauek guztiak arrendamendu finantzario bidez erosiko dira.

## Sigmak ezinduentzako oztopoak dituela adierazi du Eusko Jaurlaritzak



**E**lgoibar Bizirik Herri Plataformakoen eskaerari erantzunez, Eusko Jaurlaritzako Irisgarritasun Kontseiluko kideak Sigmako gunea ikertu dute, eta ateratako ondorioen arabera, "mugitzeko arazoren bat daukatenentzat ezinezkoa da Sigmako gunera iristea".

Joan zen martxoaren lehen egun zuten ikerketa, eta Sigmako gunea dituen sarrera guztiak aztertu zituzten: Goiko Errota zubia, eskailerak, aldapa eta aparkalekua, eta denetan aurkitu zuten arazoren bat: aldapa gehiegi, espaloi falta, eskaileretan helduleku falta, aparkalekuan ezinduentzako leku falta...

Jaurlaritzako Irisgarritasun Kontseiluak adierazi zuenez, legea bete ahal izateko obra garantzitsuak egin beharko liriteke Sigmán. Besteak beste, espaloiak zabaltu, eta ezinduentzako aparkalekuak erreserbatu beharko liriteke.

### Aldarrikapenak

Elgoibar Bizirik Herri Plataformako kideek beren aldarrikapenekin jarraitzen dute aurrera. Honela, joan zen ostiralean, Joseba Egibar eta Onintza Lasak eskainitako hitzaldiaren aurretik azokaren leku aldatzearen kontrako oihuak entzun ahal izan ziren Kultur Etxe kanpoan.

## [ MOTZ-MOTZIAN ]

### Anjel Ugarteburu Bai ala Ez lehiaketako irabazlea

Hilabete honetan Gabi jatetxean bi lagunentzako afaria zozketatu du BARREN astekariak Bai ala Ez atalean, eta Anjel Ugarteburu izan da irabazlea. Datorren hilabeteetan Kresala Talasoterapia hotelean bi lagunentzako zirkuitoa zozketatuko da. Parte hartu nahi duzuenok SMS bat bidali behar duzue 7744 zenbakira, eta bai ala ez erantzun.



### Joseba Egibar eta Onintza Lasak Kultur Etxean

Hauteskunde kanpaina hasi zen egun berean, apirilaren lehen, Joseba Egibar (EAJ) eta Onintza Lasak (EA) hitzaldia eskaini zuten Kultur Etxean, beraien alderdiaren helburuak azalduz.



### Espazioaren antolamendua eta gestioa ikastaroa

Elgoibar BH Institutuak eta Txan-kakuak antolatuta "Espazioaren antolamendua eta gestioa merkatal establezimendu batean" ikastaroa izango da apirilean. 80 orduko iraupena dauka eta doan izango da. Interesatuek apirilak 15a baino lehen eman dezakete izena 943 74 73 01 telefonon.

## Ilegalizazioaren aurkako itxialdia eta kontzentrazioa



Joan zen ostiralean, apirilak 1, Batasunaren ilegalizazioaren aurkako itxialdia egin zuten Ezker Abertzaleko hamar lagunek Merkatu Plazako goiko lokalean. Bertan pasatu zuten gaua, eta larunbat eguerdian eman zioten amaiera itxialdiari. Larunbatean, eguerdiko 13:30ean, "Ilegalizaziorik Ez" lemapean kontzentrazioa egin zuten Merkatu Plaza aurrean. Eguraldiak gehiegi lagundu ez arren, aterkiak harturik egin zuten kontzentrazioa.



27 urteko agintaldia eta gero, Karol Wojtyła Aita Santua hilaren 2an hil zen

## Zer nabarmenduko zenuke Juan Pablo II.a Aita Santuak egindakotik?

**KARMELE GABILONDO**  
Etxekoandrea  
70 urte



“Herralde behartsuei egin dizkien bisitak aipatuko nituzke. Loiolara etorri zenean oso gustura joan ginen bera ikustera. Nire gustukoa izan da Aita Santu hau.”

**P. JOSE OTEIZA**  
Especialista  
52 urte



“Ez dut jarraitu bere bizitza, baina gazteekin izandako detaile batzuk gustatu zaizkit. Gizon ona izan da, bukaeran ahalegin handia egin du jende aurrera irtetzeko”

**JOSE MARIA GIL**  
Langabetua  
38 urte



“Gauza asko egin ditu Aita Santu izan den artean, eta lehenago ere, baina orain jakin ditugu gauza guztiak. Telebistan eman duten guztia gehiegizkoa izan da.”

**MAGDALENA GARCIA**  
Etxekoandrea  
54 urte



“Gauza on asko egin ditu, gazteekin batez ere. Honetaz gain, mundu guztiko behar-tsekin oso solidarioa izan da. Bera ere familia apalekoa zen, eta oso ona izan da.”

## [ BAI ala EZ? ]

### Ba al daukazu gerrikoa jartzeko ohiturarik?

**BAI %98**

“Bai, beti. laz esperientzia txar bat izan nuen: kopilotuaren eserlekuan jarrita nindoala, susto txiki bat eduki nuen herri barruan. Lesio txiki hori erraz ebitatuko nukeen gerrikoa jarrita izan banu”

**EZ %2**

“Askotan egiten ditut bide luzeak gerrikorik gabe. Hori bai, multen eta gida-puntuen kontuarekin, gerrikoa errazago jartzen dot. Isunak istripu arriskuak baino eragin handiago izan du nigan.”

Datorren asterako.... **Babes ofizialekoak eta pribatuak Maalan, Santa Klaran, Errosario kalean...**

**Behar al da hainbeste etxe berri Elgoibarren?**

Bidali SMS bat:

**BARREN** (espazioa) ERANTZUNA

**7744** zenbakira SMS kostua: 0'90 € + B.E.Z.-a.



Hurrengo hilean bi pertsonentzako zirkuito bat zozketatuko dugu **Kresala hotelean**. Zenbat eta erantzun gehiago, aukera gehiago!  
[www.aisiahoteles.com](http://www.aisiahoteles.com)



## GARBIÑE DEL HOYO

ARROPA DISEINATZAILEA

# «Astore etxearentzat kirol-jantziak diseinatzen ditut»

*Garbiñe Del Hoyo 37 urteko emakume elgoibartarra da. Moda diseinua zaletasun zuen eta marketing ikasketak amaitu ostean Diseinu eta Moda ikasketak egin zituen. Gaur egun Arrasateko Astore kirol etxearentzat dihardu lanean.*

### 🦋 Zer diseinatzen duzu?

Batetik, kirola egiteko arropa eta, bestetik, "sport-wear" deitzen dena. Urtean bi bilduma egiten ditut, bata udaberrirako eta bestea negurako. Emakumezko, gizonezko, gazte eta haurrentzako kolekzioak, hain zuzen ere. Orohar, arropa eroso diseinatzen dugu.

### 🦋 Zer edukitzen duzue kontuan bilduma diseinatzerako garaian?

Arropa eta oihal ekoizleek eskaintzen dituzten proposamenak aintzat hartzen ditugu. Parisen eta Munichen izaten diren azoketara joaten gara. Erakusketa handi hauean eskaintzen diren tendentzia eta proposamenen arabera diseinatzen dugu. Pariseko azokan, esaterako, kolore eta material jakin batzuetako oihalak erosten ditugu. Municheko kirol azoka mundu guztiko denda eta enpresa haundien bilgune bihurtzen da. Gu ere bertan izaten gara "Ternua" markarekin. Era berean, kaleko jendea nola jantzen den ere kontuan izaten dugu.

### 🦋 Zein arropa mota diseinatzea gustatuko litzazuke?

Euskal jantziaren aritza gustatuko litzaidake. Lanbidea baino afizioa izango litzateke. Artxiboetan dokumentatuz, grabatuak ikusi eta begiratuz antzinako euskal arropak berreskuratzea polita litzateke.

### 🦋 Non egiten da modarik hobere-na?

Sormenari dagokionez, Paris da erreferentzia. Salerosketen merkatua, bestalde, Alemanian kokatzen da. Modaren merkatua bertan mugitzen da, eta enpresa onenek nahiz markarik indartsuenek Alemanian dute egoitza. Gune komertziala da, hemendik burutzen dira gainontzeko herrialdeekiko salmentak.

«Balentziaga dut diseinatzailearik gustukoena»

### 🦋 Nola ikusten duzu euskal moda?

Diseinu munduan apenas dago enpresarik Euskal Herrian. Oihal eta jantzi asko kanpoan ekoizten da. Honi makinaren monopolioa eta dibertsifikazio eza gehitu behar zaizkio. Ondorioz, oihalak egiten dituzten lantegi asko desagertzen ari dira. Hala ere, egiten den moda urria izan arren, kalitate oso onekoa dela.

### 🦋 Gustuko diseinatzaile bat?

Balentziaga. Bere garairako oso diseinatzaile ona zen eta, gainera, nortasun handikoa. Jantzi bat egiteko prozesu osoa menperatzen zuen: moztzen, josten... zekien. Orduko jantziak gaur egun ere emango balira, beti ere jai eta ospakizun berezietan (koktelak, afariak...) ez lirateke lekuz kanpo egongo. Azken batean, modaz iragaten ez diren jantziak baitira.

### 🦋 Sariak ere eskuratu dituzu, ezta?

Bai. Ikasketak bukatu ostean, masterra egiten ari nintzela, "Diseñadores Noveles" deitzen den lehiaketan parte hartzeko aukeratu ninduten. Horrela, nire lantzeria bildumari esker saritua izan nintzen Igedon (Alemanian). Urte berean beste sari bat jaso nuen Bilbon haurrei zuzenduriko arropa bilduma bati esker.

### 🦋 Zer da moda munduan gauzarik berritzaileena?

Oihalen eta teknologiaren uztartzea. Hau da, kalitatezko oihalak. Uraz babesteko mintz bat eraman dezaketena, eguzki izpien aurkako babesa izan dezaketena, edota, mendian galdu edota larrialdiren batean pertsona haitemateko txip bat dutena, besteak beste.

ESTHER GURRUTXAGA

*Mendaroko musika zaletu talde batek bere ametsa errealitate egin du. Urte askotako lanak eman du azkenean bere fruitua, eta Mendarok badu dagoeneko Musika Eskola. Herria handitzen ari da azken urteotan, eta herritarren beharrak ere, gero eta gehiago dira. Garai batean, herriko umeak Elgoibarrera joaten ziren musika ikastera, edo talde txikitan banatuta elkartzen ziren etxe partikularretan. Gaur egun, Ameikutz Musika Eskola errealitatea da.*

## ONINTZA LOIOLA

AMEIKUTZ MUSIKA ESKOLAKO IRAKASLEA

### «Lau urtetan txiki gelditu zaigu Musika Eskola»

• **Noiz sortu zen Mendaroko Musika Eskola?**

Aurtengoa laugarren ikasturtea da, baina lanean askoz lehenago hasi ginen. Urte askotako lana izan da, baina merezi izan du.

• **Nola hasi zineten?**

Mendaro herri txikia da, eta lehen gainera askoz txikiagoa zen. Ez zegoen ume askorik, eta musika ikasteko aukera bakarra irakasleen etxe partikularrean zegoen. Nik urte asko eman nituen solfeoa eta pianoa etxean irakasten, eta badakit beste batzuk txistua eta trikitixa ere irakasten zutela. Bakoitzak bere aldetik irakasten zuen ahal zuena.

• **Nola sortu zen bateratzeko ideia?**

Gaur egun Zuzendaritzako presidentea den Aitor Motriko etorri zitzaidan egun batean, Mendaroko musika eskaintza bateratzeko ideiarekin. Ume gutxi zegoen orduan Mendaron, baina dena egokia iruditu zitzaigun.

• **Lan handia izan al zen musika eskola martxan jartzea?**

Bai, neketsua izan zen. Bilerak egiten hasi ginen, baina alde guztietatik eragozpenak jartzen zizkiguten. Garai hartako Udalak ez zuen proiektu honetan sinisten, ez zuen musika eskola baten beharrik ikusten, eta hasiera batean ez ziguten gehiegi lagundu. Baina Mendaro hazten ari zen, eta hura zen momentua.

• **Oztopo guztien gainera aurrera egitea erabaki zenuten?**

Bai, oso ilusionatuta geunden, eta aurrera egin genuen, ez ginen ezetzarekin gelditu. Kulturako arduradunak Elkarte bezala funtzionatzen bagenuen, beharbada zerbait egin ahal izango litzatekeela esan zigun. Honela, Ameikutz Musika Eskola sortu genuen, baina Elkarte izaerarekin. Donostiara joan ginen papeleo guztiak egitera, eta han esan ziguten Zestoako eredu jarraitu genezakeela. Zestoa ere herri txikia da, oso ume gutxirekin hasi ziren lanean, baina aurrera egitea lortu zuten.



Zestoako arduradunekin harremanetan jarri ginen, eta oso ondo portatu ziren gurekin. Mendarora etorri ziren bilera batetara eta beharrezko azalpen guztiak eman zizkiguten. Bitartean Udalarekin negoziazioetan jarraitzen genuen.

• **Zein zen arazo nagusia?**

Diruaz aparte, lokal falta zen arazo nagusia. Mendaron ez zegoan lokalik hutsik. Udaletxe berria egin zenean, lokal hauek hutsik gelditu ziren, eta guri eskaini ziguten. Lehen Kultur Etxea eta liburutegia zeuden hemen. Honekin batera, Udalak herriko gainontzeko elkarteei bezala dirulaguntzak emango zizkigula esan zigun. Egoera hobetzen hasi zen, eta honela, 2001eko irailean jarri genuen martxan.

• **Nolakoa izan da lau urte hauetako eboluzioa?**

Oso ona. Hasieran geneukanarekin hasi ginen, eta musika eskaintza oso urria zen. Solfeoarekin hasi ginen, gerora korala gehitu genuen, eta instrumentuetan aukera gutxi zegoen: Txistua, trikitixa, kitarra, pianoa eta besteren bat. Ume gutxi genituen, irakasleak ere ez ginen asko, eta ahal genuena egiten genuen.

«Musika eskola martxan jartzea lan handia izan da baina merezi izan du»

• **Gaur egun, zer ikasi daiteke Ameikutz Musika Eskolan?**

Gaur egun 13 instrumentu desberdin erakusten dira. Honetaz aparte, Hizkuntza Musikala eta korala ere ematen ditugu.

• **Zenbat irakasle dituzue?**

11 irakasle gabilza hemen lanean. Suerte handia izan dugu. Batzuk mendaroarrak gara, baina beste batzuk kanpotik etorri behar izaten dute, eta kasu batzutan ume bakarrari klasea ematera gainera.



Eskaera guztiei erantzuten saiatzen gara, eta orain arte lortu izan dugu.

• **Zenbat ikasle dituzue?**

Hizkuntza musikala ikasten 54 ikasle ditugu, eta horietatik 20 ikasle instrumenturen bat ikasten ari dira. Honetaz aparte, beste 39 ikasle instrumentua ikastera bakarrik etortzen dira. Aurten 15 ikasle berri matrikulatu dira. Ikasle gehienak 3 eta 12 urte bitartekoak dira, baina heldu batzuk ere baditugu. Mendaroko Ikastolatik 12 urterekin Elgoibarrera joaten dira ikastera, eta gehienek utzi egiten diote musika eskolara etortzeari.

• **Zein da gehien eskatzen duten instrumentua? Eta gutxien?**

Aurtengoan kitarrak izan du arrakasta handiena, eta gutxiena flauta trabeserak, ikasle bakarra daukagu.

• **Urtean zehar egiten al duzue ekitaldirik jende aurrean?**

Bai. Lehenengo urtean kurtso bukaerako jaialdia egin genuen, eta sekulako sorpresa izan zen. Orain bi egiten ditugu, bata Gabonetan eta bestea kurtso amaieran.

• **Lehenengo solfeoa eta hizkuntza musikala gauza bera al dira?**

Ez. Hemen ez dugu azterketarik egiten. Hobby bat da, eta umeak ondo pasatzera etortzen dira. Partiturak irakurtzen eta erritmoa eramaten erakutsi egin behar zaie, baina beraiei gustatzen zaizkien piezak jotzen ditugu. Profesionalki instrumentu bat ikasi nahi duenak gaur egun Donostiako kontserbatoriora joan behar du.

• **Etorkizunari begira, zein da zuen helburua?**

Oraindik flojo dauden instrumentuek indarra hartzea nahiko genuke, eta jende heldua ere etortzea musika ikastera. Bestalde, lokala txiki geratu zaigu. Badirudi, Udalak egingo duen Gazte Lekuan izango ditugula egoitza berria eta ekitaldiak egiteko auditorioa. Honetaz gain, elkarte izateari laga eta herriko musika eskola izatea gustatuko litzaiguke, batez ere ekonomikoki hobeto egoteko, langileen egoera hobetu, eta beharrezko materiala erosi ahal izateko.

# GAZTIA NAIZ

## 10tsaGA BE

Sara Perez 17 urte

**Zentarako izan nahi zenituzke 18 urte?**  
Askatasun gehiago edukitzeko.

**Nori kontatzen dizkiozu zure sekretuak?**  
Nire laguneri.

**Gurasoak eta semeak izan al daitezke lagunak?**  
Gurasoak beti izango dira guraso, harremana desberdina da.

**Neska eta mutilak lagunak bakarrik izatea posible al da?**  
Bai, dudarik gabe, nik lagun asko ditut mutilak.

**Neska batek gustuku zaituela esango balizu?**  
Harrituta geldituko nintzateke, lagunak izaten jarraituko genuke.

**Jeloskorra al zara?**

Ez gehiegi, baina egoera batzuetan piskat bai.

**Zenbat aldiz begiratzen zara ispiluan?**

Atera baino bi minutu lehenago, ea zein ile dauzkadan ikusteko.

**Zer aldatuko zenuke zure gorputzetik?**

Eskuak.

**Gizaki perfektuak zein ezaugarri izan beharko lituzke?**  
Ez dago gizaki perfekturik, denok dauzkagu defektuak.

**Edertasunari garrantzia ematen al diozu?**  
Ez, beste gauza batzuk baloratzen ditut gehiago.

**Noren azalean bizi nahiko zenuke egun batez?**  
Ni neu izanda gustura nago.

**Gizonak eta emakumeak berdinak al dira?**  
Bai, eta eskubide berberak izan beharko genituzke.

**Gaur egungo gazteei interesatzen al zaizue politika?**  
Niri ez gehiegi, baina denetarik egongo da!

**Zein ikasgai botatzen duzu faltan?**  
Soinketa. Deskonektatzeko ondo etortzen da ordubete kirola egitea.

**Nork irabaziko du bihar Reala eta Athleticken arteko derbya?**

Realak irabaztea nahiago dut.

**Institutoa eta gero zer egiteko asmoa duzu?**

Kimikan Espezializatutako Ingeniaritza Teknikoa Gasteizen.

# BARREN

## jakiteko...

### HOMOSEXUALITATEAZ 902 200 096 ZENBAKIAN

Gehitu elkarteak, Euskal Herriko Gay eta Lesbianen Elkarteak, telefono zenbaki bat ireki du homosexualitatearen inguruan edonork izan ditzakeen zalantzak, kezak, beldurrak edo beste edozeri buruzko informazioa emateko. Nori dagoen

zuzendua? Gazteei, gurasoei, hezitzaileei, begiraleei... Homosexualitateaz modu ireki batean eta aurreiritzirik gabe hitz egitea dute helburu. Informazioa eman eta zalantza guztiak argituz. Telefono zenbakia 902 200 096 da.

### GAZTE AUKERAREKIN LONDRESERA!

Londres ezagutu nahi al duzu? Edo lehen ere izana zara bertan eta irrikaz zaudete itzultzeko? Gazte Aukera web orriak eskura jarri duen lehiaketa baten bidez bi lagunentzako Londresera bidaiara irabazi dezakezu. Horretarako, [www.gazteaukera.euskadi.net](http://www.gazteaukera.euskadi.net) orrian sartu besterik ez duzu. Bertan, bi pertsonaia ikusiko dituzu baina beraien aurpegia



ezabatua dago. Egin behar den bakarra, aurpegi horien atzean ezkatzen diren pertsonen izena eta abizena asmatzea da. Epea apirilaren 25ean amaituko da. Lehiaketan parte hartzeko 18 eta 30 urte bitartean izan behar da. Irabazleak Londresera joateko aukera izango du bi famatu horien konpainian eta ETBrako erreportaje batean hartuko du parte!

### AUZOLANDEGIAK




Apirilaren 26an irekiko da Auzolandegietan izena emateko epea. Auzolandegietan leku askotako gazteak biltzen dira, euren borondatez eta ordaintan ezer jaso gabe, aldi batez elkarrekin bizi eta gizarte osoarekin zerikusia duen proiektu batean parte hartzeko helburuarekin. Sorteri ezberdinetako pertsonen euren kultura eta ohiturak elkarri trukatzeko aukera paregabea da, hori guztia ohiko ibilbideak utzita eta nekazal inguruneak ezagutzuz. Indibidualtasunetik atera eta tolerantzia eta elkartasuna bezalako baloreei ematen zaie garrantzia auzolandegietan. 15 urte-tik aurrerakoei zuzendua dago, lekuaren arabera. Euskal Herrian ez ezik, Estatuan eta atzerrian ere badira auzolandegiak. Izen-ematea internet bidez egin behar da, [www.gazteaukera.euskadi.net](http://www.gazteaukera.euskadi.net) helbidean.

**UDALEKUAK 2005 ABIAN DA!** Izena emateko epea:  
7-13 urte: apirilak 5-13  
14-17 urte: apirilak 19-29

Lan dosierrak, bekak, lehiaketak... guzti honen inguruko informazioa

**Gazte informazioko panelean aurki dezakezu!**





## 50 IBILBIDE FAMILIA ETA LAGUN ARTEAN

Euskal Herria  
deskubritzeko  
50 txango

Jentilak, Matalas, Lizardi,  
Txondorak, Elurzuloak,  
Kontrabandisten bideak,  
Pozalagua, Baltzola,  
Aixerrotak, Gaztelugatxe,  
Otsoa... Tokian tokiko ohitura,  
kultura, istorio eta altxorak  
ezagutzeko 50 bide.

Aurrez argitaratu  
gabeko 50 itzuli  
zirkular

Bizpahiru orduko  
ibilaldiak, edonork  
egiteko moduko 50  
mendi buelta

Apirilaren **24**tik aurrera  
egunero ibilbide bat **DOAN BERRIAREKIN**



Laguntzaileak:



Euskaldunok behar dugun

**berria**

## LITERATURA

### Urruzunoren bertso sortak liburu batean bilduta

**A**ntonio Zavala jesuita eta idazleak Pedro Migel Urruzuno (1844-1923) apaiz elgoibartarraren bertso sortak bildu eta 300 orritako liburu mardul batean argitara eman ditu. "Koroi eder bat", liburuaren izenburua, Urruzunok Ama Birjinari eskainitako bertso sorta baten hasieratik hartuta dago.

P.M. Urruzuno ipuinlaritzat jo izan dute, baina bertso-jartzaile oparoa ere izan zen eta hainbat bertso laga zituen idatzirik. Bertsoak topatzeko eta biltzeko bi laguntzaile izan ditu Zavalak. Batetik, Jose Maria Etxaniz Urruzuno, bertso-jartzailearen iloba eta bestetik, Antonio Arrillaga zena, Elgoibarko mediku ospetsua. Zavalaren ustez, apaizetan bertsolariena izan zen Urruzuno, euskal bertsolariaren legeen barruan moldatu baitzituen beti bertsoak.

#### Urruzunoren paperak

Elgoibarren jaio zen arren, Mendaron eman zituen bizitzako urterik gehienak Urruzunok, bertako moja itxien kapelau.



Mendaroko agustindarren komentuko atea jo zituen Zavalak Urruzunoren paperen galdezka, baina haren gelako paper eta tresna guztiak erre egin zirela jakinarazi zioten. Kontatu ziotenez, Urruzuno hil ondoren gaitz oso kutsakorra zuen moja bat eduki zuten han, eta beste inor kutsa ez zedin, gela berezi hartan eduki zuten. Bertan hil zen eta hango traste guztiak erre egin zituzten, badaezpada, Urruzunoren paperak tartean.

#### Idazmakinak lehiaketa abian

Elgoibarko Izarrak antolatzen duen literatur lehiaketaren azken edizioa martxan da. Aurten izen berriarekin bataiatu dute ipuin eta bertso-paper lehiaketa hau, Idazmakinak. Ipuinei dagokionean, hiru maila egongo dira, bakoitzeko gai ba ezarri delarik: DBH 1-2 ("Hiru desio"), DBH 3-4 ("Txateatzen ezagutu dut") eta DBHO ("Nire fantasiak").

Etxegiña bertso-paper lehiaketari dagokionean, berriz, bi maila daude: DBH 1-2 ("Telebistan irten naiz") eta DBH 3-4 ("Ezain naiz lokartu").

Janak Elgoibarko Izarrara bidali behar dira maiatzaren 13a baino lehen. Sariak 45 eta 150 euro bitartekoak dira eta ekainean banatuko dira.

#### Akuarela ikastaroa

Egur Arte Tailerrak Akuarela ikastaroa eskainiko du apirilaren 18tik maiatzaren 9ra. 30 orduko ikastaroa izango da eta klaseak Egurrek Plaza Txikian duen tailerrean emango dira. Izena emateko ordutegia: 18:00etatik 20:00etara.

**Pintxoetan** aukera zabala  
P. Muguruza, 7 Tel: 943 74 16 76

**Bulgatu S. Coop.**  
Olaso industrialdea. Olasope, 66-A  
Tel.-Faxa: 943 74 42 54 - 20870 ELGOIBAR

**MEKANIZATUEN TAILERRA**

**CORDON VILARCHAO**

DEKORAZIOA

Kango eta banelo estaltza  
Zaluzen kolokazioa  
Lakadets: egur, aluminio, P.V.C.  
Pintura orokorra

San Roke, 7 behean  
Pol. Olaso - Olasope kalea, 18 - 25 eta 28 moduloa  
Tel. 943 740 570

GRUPO  
TRUMET

**MIGUEL CASTRO** ESPELEOBUZEATZAILEA

## «Espeleobuzeoan ur azpian zaudenean debekatuta dago izutzea»



*Lizarran jaio arren, 7 urte daramatza Migel Castrok Elgoibarren bizitzen. Banketxe batean lan egiten du, baina espeleobuzeoa da bere pasioa. Iruñeako Triton Espeleobuzeo taldeko kidea da eta Espainiako kobazuloetako murgilketa errekorra hausten saiatu dira duela gutxi.*

### 🦋 Zertan datza espeleobuzeoa?

Kobazuloen ezagutzan uraren oztopoa, espeleologia klasikoaren muga, gainditzen duen kirola da. Sifoiak motibazio bat gehiago dira orain. Bestalde, espeleobuzeoari esker akuiferoen berri izan dezakegu. Garrantzitsuagoa da ur baliabideak ezagutzea beharra izan aurretik.

### 🦋 Zer da erakargarriena?

Hurrunera joan beharrik gabe leku birjina ezagutzeko aukera kitzikagarria da. Ur gardenetako haitzuloetan hegan zoazela dirudi eta sifoi baten irteeran alderantzizko ispiluaren efektua ematen denean, sentsazio harrigarria da sabaian norbere burua ikustea argien eta erreflexuaren eraginez.

### 🦋 Noiztik duzu afizio hau?

Nafarroan 15 urte neramatzan espeleobuzeoan. Lau katu ginen eta ezjakintasuna erabatekoa zen. Eboluzioa eta segurtasun neurriak istripuak ikertzetik iritsi dira, zoritxarrez. Egun ez gara 100etik gora izango Espainian.

### 🦋 Espainiako murgilketa errekorra hausten saiatu zarete.

Truciosen (Bizkaia) dagoen La Mora haitzuloan saiatu ginen Espainiako kobazuloetako murgilketa errekorra ezartzen. 120 metrotan dauka errekorra Martin Burgi irundarrak eta 130 metro-tara iritsi nahi genuen, baina ur azpian

111 metrotara iristea lortu genuen. Kobako paretak gehiegi estutzen ziren eta Josi Olave, puntako urpekariak, ezin izan zuen aurrera jarraitu. Gutxienez, koba berean duela 2 urte ezarri genuen marka (104 metro) gainditu genuen.

### 🦋 Konplikatua dirudi horrelako errekor batek.

Bai, sei hilabete eman genituen prestatzen. Babesleak topatu (Iraund S.A, Alura S.L eta Barbolight), ekipo bereziak erosi (3.000 euro amasteko gasetan bakarrik), eta bidea ekipatzen 20 bat murgilketa egin genituen. Bederatzi urpekari eta 50 bonbona erabili genituen. Puntako urpekaria jaisten da behar baino 150 kiloko ekipoa soinean duela, eta gainontzeko urpekariok gora igotzen laguntzen diogu. Ni 70 metro-taraino jaitsi nintzen.

### 🦋 Amasteko gasen nahasketan dago gakoa, ezta?

Bai, ahalik eta bizkorren jaitsi behar da deskonpresioa ez pilotzeko. 20 minutu egin zituen Josik jaisten eta 3 ordu behar izan genituen igotzeko. Jeisteko helioa eta oxigenoa erabiltzen ditugu, baina igoeran odolean gertatzen den helioa ezabatu behar izaten da deskonpresioaren bitartez. Norbere buruan dago arriskurik handiena. Izua da urpekariaren areriorik nagusia. Hor behean galerazita dago izutzea.



«20 minutuan jaitsi ginen  
111 metrora eta 3 orduan igo»



## GIPUZKOAKO HIRU TXIRLO BOLO TXAPELKETA

### Xabier Loiola nagusitu zen Eibarko Bolo Txapelketan



*San Rokeko bolatokian jokatuko da hurrengo saioa bihar, zapatua.*

## [ EMAITZAK ]

### FUTBOLA

Haundi 1 - Gemika 3 (3. maila)  
 Ilintxa 5 - Elgoibar 0 (1. erreg.)  
 Eibar 2 - Elgoibar 1 (Jub.)  
 Elgoibar 1 - Añorga 0 (Kad.)  
 Antzuola 0 - Elgoibar 1 (Neskak F-8)

### PILOTA

#### Udaberi Txapelketa

Lagunak 7 - Tartaloetxe 22 (Kad. 2. maila)

### ESKUBALOIA

Tecnomeca Sanlo 16 - Usurbil 37 (Kad. mut.)  
 Gatz museoa 21 - Pneumax Sanlo 19 (Jub. m.)  
 ANTT-Softlan Sanlo 21 - Ormaiztegi 31 (Sen. m.)  
 Sanlo 35 - Bera Bera 14 (Sen. nesk.)  
 Tecnifuelle26 - Luk-INT 20 (Sen. mut.)

## [ AGENDA ]

### FUTBOLA, Mintxetan

#### Zapatua, 9

12:15 Elgoibar - Zumaiako (Kad.)  
 18:30 Elgoibar - Zugatzarte (Jub.)

#### Domakia, 10

10:30 Elgoibar - Zarautz (Aleb.)  
 12:00 Elgoibar - Urki (Neskak F-8)

**S**an Migelgo bolariek ezin hobeto hasi dute Gipuzkoako Hiru Txirlo Bolo Txapelketa. Eibarko Asola Berri bolatokian jokatu zen lehen jardunaldia joan zen asteburuan, eta lehen lau sailkatuak sanmigeldarrak izan ziren. Xabier Loiola izan zen irabazlea 6 txirlo botata. Angel Ibarluzea eta Imanol Osoro bigarren eta bostgarren postuan sailkatu

ziren hurrenez, hurren, bakoitza 5 txirlorekin. Laugarren herritarra Unai Loiola izan zen lau txirlo botatzea lortu ostean. Hurrengo bi sailkatuak eibartarrak izan ziren. Guztira 69 bolarik parte hartu zuten. Txapelketako bigarren jardunaldia Elgoibarren jokatuko da zapatuan, hilaren 9an, San Rokeko bolatokian. Saioa arratsaldeko 16:30ean hasiko da.

## Urbasa eta Entziako mendietara irteera apirilaren 24an



Morkaiko Mendizale Elkartearen hurrengo irteera Urbasa inguruetara izango da apirilaren 24an. Urbasako portuan hasiko dute ibilbidea. Bide guztia Urbasa eta Entziako mendien ipar aldeko ertzetik egingo dute. Aldapa handiegirik gabeko txango honetan paraje ederrak ikusiko dituzte. Parez pare, Aitzkorriko mendilerroa. Hegoaldean ostera, pagadi amaigabea izango dute ikusmiran. Ibilaldiaren amaieran Legaireko zelaietatik pasako dira, Opakuako portura iritsi aurretik. 18 kilometroko luzera duen irteera 6 bat ordutan egiteko modukoa dela adierazi digute Morkaikotik. Izena emateko epea irekita dago. Bazkideek 6 euro eta 9 euro gainontzekoek. Irteera goizeko 8:00etan izango da Plaza Handitik.

## OHARRA

Merkatu txikirako mezuak ekartzeko azken eguna asteazken eguerdiko 13:30a da.



- Zumaia enpresak proiektzio zinematografiko enpresak behar du. Erref. 162005003083
- Arrasateko enpresak delineaio irakaslea behar du. Erref. 162005003138
- Arrasateko enpresak erizaina behar du. Erref. 162005003089
- Eibarko enpresak tomurako langilea behar du. Erref. 162005002358
- Eibarko enpresak fresadorarako langilea behar du. Erref. 162005002363
- Azkoitiko enpresak industri-makineria muntatzailea behar du. Erref. 162005002865
- Arrasateko enpresak komertziala behar du. Erref. 162005002523
- Debako enpresak eraikuntzarako bi langile behar ditu. Erref. 162005002947
- Arrasateko enpresak gasolindegirako langilea behar du. Erref. 162005002525

Hautagai moduan sartzeari eskatu nahi baduzu 901222901 telefonora deitu edo 'langai'-k Elgoibarren dituen zentru laguntzaile hauetako batera deitu: Elgoibarko Institutua (Pejo Juaristi) 943 74 80 19 edo IMH (Nora Ramón) 943 74 41 32 telefonora.

## [ LANA ]

### ESKAERA

- † Mutil gaztea lanerako prest: garbiketara lanak, sukaldetan, igeltsaritza... ☎ 646 23 51 95 (Juan Carlos)
- † Mutila lanerako prest. ☎ 610 61 20 43
- † Portalak garbitzeko prest. ☎ 670 77 86 55
- † Propaganda banatzeko prest gaude. ☎ 679 29 76 81 (Mari)
- † 17 urteko neska umeak zaintzeko prest. Esperientzia daukat. ☎ 670 77 86 55 (Itsaso)
- † Goi Mailako Administrazio eta Komertziala den neska euskalduna enpresa batean lan egiteko prest. ☎ 943 74 27 78/616 20 36 88
- † Garbitzen edo adinekoak zaintzen lan egingo nuke. ☎ 639 88 20 04
- † Emakumea nagusiak zaindu, sukalde laguntzaile edo garbiketara lanak egiteko prest. ☎ 943 20 68 41
- † Emakumea nagusiak zaintzeko prest. ☎ 690 70 11 18

### ESKAINTZA

- † Abuzturako emakumea behar da emakume nagusi bat zaintzeko. Eskarmentua eta euskara ulertzea eskatzen da. ☎ 943 74 21 53 (Ramon. 20:00-22:00)
- † Eibarko taberna baterako kamarero euskalduna behar da. ☎ 943 70 19 95 (Rakel)
- † Neska behar da jatetxean eta barran lan egiteko. ☎ 635 75 16 42
- † Sukalderako laguntzailea behar da. ☎ 943 12 12 62

## [ ETXEBIZITZAK ]

### SALMENTA

- † Etxea salgai Basariten. 75m<sup>2</sup> Dena kanpora. 2 logela armairuekin, 2 komun, egongela, sukaldia, garajea. ☎ 652 70 99 15
- † Etxea salgai Mendaron. Herriko Enparantzan. Sukaldia, egongela, 2 komun, 3 logela, trasteroa. ☎ 676 81 46 97
- † Etxea salgai Elgoibarren. Amueblatuta, berritua, igogailua eta berogailua. Garajea aukeran. ☎ 645 73 20 90
- † Apartamentua salgai Madalan. 46m<sup>2</sup>. 3 urte. Egoera onean, oso polita. ☎ 943 53 11 02 (gavez)
- † Etxea salgai Errosario kalean. Berritua, altzariekin, bizitzera sartzeko. 3 logela, komuna, egongela, despentsa, berogailu zentrala. Prezioa adosteko. ☎ 943 74 02 68/699 17 98 72
- † Etxea salgai erdialdean. 2 logela, egongela, sukaldia, komuna. Altzariekin, bizitzera sartzeko moduan. ☎ 699 29 36 13
- † Etxea salgai Basarteko lehen ilaran. 68m<sup>2</sup>. Dena kanpora. 2 logela, 2 komun, egongela, sukaldia, lehortegia, garajea. ☎ 687 23 58 39
- † Etxea salgai ubitarten. 2 logela, egongela, sukaldia, eta komuna. Berritua, altzari eta ganbararekin. ☎ 652 71 67 24

### ALOKAIRUA

- † Pisu hartuko nuke alokairuan. ☎ 699 60 91 90
- † Pertsona euskalduna behar da pisua osatzeko. ☎ 679 866 923
- † Logela alokatzen da. ☎ 943741881
- † Peñiscolan etxea alokatzen da. Opor, asteburu, despedidak... Igerilekua, tenis pista, mini golf... ☎ 964 49 10 22
- † Peniscolan etxea alokatzen da. 5 logela, terraza, itsasora eta mendira begira. ☎ 964 49 10 22

## [ LOKALAK ]

- † Lokala alokatzen da Altzolan. 166m<sup>2</sup> ☎ 943 19 19 52

## [ GARAJEAK ]

- † Garajea alokatzen da Leku Ederren, 3. solairuan. ☎ 943 74 20 34/639 35 33 31
- † Garaje itxia salgai Madalan. 28m<sup>2</sup>. ☎ 646 50 28 66 (arratsaldez)
- † Arregitarren garajea salgai. (10 zenbakia) ☎ 679 83 04 38
- † Garajea alokatzen da karakolean. ☎ 943 74 17 14
- † Garajea salgai Urasandin. ☎ 943 74 07 26 (21:00-22:00)
- † Garaje itxia alokatzen da Mendaron. ☎ 666 620 362
- † Garaje itxia alokatzen da Trenbide kaleko etxe berrietan. ☎ 943 74 01 77
- † Garaje itxia alokatzen da Berria. ☎ 943 74 02 68

## [ PARTIKULARRAK ]

- † ESO 4. mailako klase partikularrak emango dituen norbait behar dut. ☎ 677 157 117
- † Klase partikularrak ematen ditut. HH eta LH. ☎ 646 930 846
- † Ekonomia Zientzietan lizentziatua behar da finantzazko klase partikularrek emateko. ☎ 943 74 40 31

## [ SALEROSKETAK ]

- † Laminazko somiera salgai. 90zm. ☎ 661 22 51 49
- † Hispano-arabe arrazako zaldia salgai. Hezitua, pasiaran ibiltzeko egokia. ☎ 669 03 89 57
- † Karro-kanping "comanche" salgai. Ekonomikoa. ☎ 615 72 64 30/943 08 00 81
- † 2. eskuko piragua erosiko nuke ibaian eta itsasoan ibiltzeko. ☎ 696 09 33 79
- † Silvercross kotxe kapota salgai. Ia berria. ☎ 943 74 01 94 / 606 019 719
- † Arko itxurako izozkailua salgai. ☎ 943 53 18 39 (19:00-20:00)
- † Bikientzako kotxe silla salgai INGLE-SINA markakoa. (Silla, Grupo O, sakuak, burbujak, etab.) ☎ 636 129 543

Elgoibarko Izarrako ATXUTXIAMAIIKA eta GAZ-T Aisialdi Taldeak

## UDARAKO BEGIRALEAK BEHAR DIRA

Baloratuko da: • Begirale titulu  
• Esperientzia

Atxutxiamaika eta Gaz-T Aisialdi Taldeak  
Ubitarte 4, Behea 20870 - ELGOIBAR  
Informazio gehiago: 943 74 16 26 (Aiora)  
aiora@elgoibarkoizarra.com

Curriculumak jasotzeko azken eguna: maiatzak 6

## [ZORIONAK]



† Zorionak **Xabi Arriola** apirilaren 7an urte bat egin zenuelako eta patxo handi bat Oierren partez



† Oso ondo igaro genuen zure 1. urtebetetze egunean. Zorionak **Olaia** lkastolako lagunen partez!



† Zorionak **Oihane** apirilaren 10ean 6 urte egingo dituzulako. Familiakoen eta anaia Jonen partez.




† Zorionak **Aitor** hilaren 10ean 11 urte egingo dituzulako. Senide guztien partez muxu handi bat.



† Zorionak **Yune** hilaren 7an urtebete egin zenuelako. Guraso, osaba-izeba eta aitona-amonen partez.



† Zorionak **Nalaya** bihar urtebete egingo duzulako. Guraso eta aitona-amonen partez.



† Zorionak **Judith** hilaren 4an 4 urte bete zenuelako. Gurasoen eta familiakoen partez.



† Zorionak **Nerea** hilaren 13an 6 urte beteko dituzulako. Familiakoen partez muxu handi bat.




† Zorionak gure etxeko udaberriko bi loreei, **Irati** eta **Ane**. Zuen irribarrez txoko guztiak alaitzen jarrai deza zuela!



† Mila kilo zorion eta muxu haundi-haundi bana gure apirilko larrosei.



† Pilar Ikastetxeko Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako irakasle eta ikasle guztien partez zorionak **Jokin**, **Nerea**, **Eneko** eta **Leire**ri. Egun ona pasa!



† Zorionak **Joseba** eta **Iker** martxoaren 26an 7 urte bete zenuelako. Guraso, aitona-amoneta Nalayaren partez.



**gazte**  
informazioa

### LANA MEDIKUAK

Gipuzkoako Foru Aldundirako medikuen lan poltsa osatu nahi da. Medikuntzan lizentziatua behar da izan. Epea: apirilak 19. Informazio gehiago: 943 11 33 44, [www.gipuzkoa.net](http://www.gipuzkoa.net)

### GAZTERIA, HEZKUNTZA, ENPLEGUA

Zarauzko Udalak gazteria, hezkuntza, prestakuntza eta Enplegua arloen arduradun izateko Erdi-mailako teknikari bat kontratatuko du oposizio-lehiaketara bidez. Diplomatuak edo unibertsitateko erdi mailako titulua. Epea: apirilak 18. Informazioa: 943 00 51 00

### GIZA BALIABIDEETAKO TEKNIKARIA

Oñatiko Udalak Antolaketa eta Giza Baliabideetako Teknikari lanpostu bat betetzeko oposizio-lehiaketarako deialdia egin du. Epea: apirilak 25. Informazioa: 943 78 30 69..

### LEHIAKETAK

#### MURCIA JOVEN 2005 MODA DISEINUA

Murciako Udalak diseinatzaile gazteei zuzendutako moda lehiaketa antolatuko du. 30 urtetik beherakoentzat. Saria: 6.000 euro. Epea: ekainak 15. Informazioa: [www.mundojoven.org](http://www.mundojoven.org).

### IKASTAROAK

#### DANTZA JAZZ

Azpeitiko gaztelekuak Dantza Jazz ikastaroa antolatu du. 8 orduko izango da, maiatzaren 6, 7, 13 eta 14an. Epea: apirilak 14. Informazioa: 943 15 71 6.

### TAI CHI

Azpeitiko gaztelekuak Tai Chi ikastaroa antolatu du. 26 orduko izango da. Epea: apirilak 12. Informazioa: 943 15 71 61.

### MAKILLAJEA

Azpeitiko gaztelekuak Makillaje ikastaroa antolatu du. 10 orduko izango da. Epea: apirilak 12. Informazioa: 943 15 71 61.

### ELGOIBARKO GAZTE INFORMAZIO GUNEA

Kultur Etxean. Bigarren solairuan.  
e-posta: [elg.gzerbitzua@terra.es](mailto:elg.gzerbitzua@terra.es)  
☎ 943 741 461



Asteartetik-ostiralera: 16:30-19:30



# Zerbitzuak



## [ OKINDEGIA ]



10 igandea EIZAGIRRE



## [ FARMAZIAK ]

8	<b>EGUNEZ</b> Ibañez	<b>GAUEZ</b> Ibañez	<b>KANPOKO FARMAZIAK</b> <b>IBANEZ</b> Rekalde, 1 Soraluze. Tel: 943 75 16 38
9	Yudego	Yudego	
10	<b>Yudego</b>	<b>Yudego</b>	
11	Etxeberria (Santa Ana)	Etxeberria	<b>FERNANDEZ</b> Herriko enparantza 4, Garagarza. Tel: 943 75 61 42
12	Fernandez	Fernandez	
13	Yudego	Yudego	
14	Zabaleta	Zabaleta	<b>ZABALETA</b> Kalebarren, 9 Soraluze. Tel: 943 75 13 84
15	Etxeberria (Errosario)	Etxeberria	



## [ TELEFONOAK ]

<b>OSASUNA</b>		<b>BESTELAKOAK</b>	
Anbulatorioa	943 03 26 10	BARREN astekaria	943 74 41 12
Larrialdiak	943 46 11 11	Elgoibarko Izarra	943 74 16 26
Planning-a	943 74 29 50	Kiroldegia	943 74 44 15
Alkoholiko Anonimoak	943 74 03 85	Kontsumo Bulegoa	943 74 30 88
D.Y.A (anbulantzia)	943 46 46 22	Liburutegia	943 74 35 25
Gurutze Gorria	943 74 38 64	Musika Eskola	943 74 21 45
Mendaroko Ospitalea	943 03 28 00	Mintxeta	943 74 43 15
Odol Emaileak	943 74 39 36	Parrokia	943 74 08 42
		Postetxea	943 74 15 47
		Gazte Informazioa	943 74 14 61
		KZ gunea	943 74 88 28
<b>UDALA</b>		<b>ADINEKOEN ETXEA</b>	
Euskara Zerbitzua	943 74 43 66	San Lazaro Egoitza	943 74 02 96
Kultura Zerbitzua	943 74 21 58	Zaharen Biltokia	943 74 05 26
Hirigintza	943 74 43 84	Eguneko Zentroa	943 74 45 65
Epaitegia	943 74 16 30		
Haziena	943 74 44 14	<b>IKASTETXEA</b>	
Mendaroko Udala	943 03 32 82	Haur Eskola	943 74 21 41
Ongizate zerbitzua	943 74 10 08	HHI (EPA)	943 74 08 80
Udaletxea	943 74 10 50	Herri Eskola	943 74 08 79
Udalizaingoa	943 74 13 94	I.M.H.	943 74 41 32
Debemen	943 74 40 67	Institutua • Arreiturre	943 74 80 19
		•Ezenarro (Meka)	943 74 80 19
<b>GARRAIOAK</b>		Ikastola	943 74 44 41
Eusko Trenbideak	943 74 04 42	Pilar Ikastetxea	943 74 13 31
PESA (Eibar)	902 10 12 10		
Taxi geltokia	943 74 08 98		
Bizkaibus	902 222 265		



## [ AUTOBUSAK ]

**ELGOIBAR - DONOSTIA**  
**Astegunak:** 7:10, 7:40, 8:10, 9:00, 10:40, 13:40, 14:00, 14:40, 15:00, 15:40, 16:00, 18:40, 19:05, 20:00, 20:40  
**Larunbatak:** 7:10, 9:00, 10:40, 13:40, 14:00, 15:00, 18:40, 20:00  
**Igandeak eta jaiegunak:** 9:40, 10:30, 13:40, 18:40, 20:00, 20:40  
**Pesa:** 902 10 12 10

**DONOSTIA - ELGOIBAR**  
**Astegunak:** 6:15, 7:00, 8:15, 9:30, 12:00, 12:30, 13:30, 14:30, 15:00, 17:30, 18:30, 19:30, 20:45.  
**Larunbatak:** 8:15, 12:00, 12:30, 15:00, 17:30, 19:30, 20:45  
**Igandeak eta jaiegunak:** 12:30, 17:30, 19:30, 20:45.  
**PESA:** 902 10 12 10

**ELGOIBAR - MENDAROKO OSPITALA**  
**Astegunak:** 6:15, 6:40, 6:45, 7:35, 8:15, 8:45... ordu erdika. Azkena; 20:45.  
**Asteburuak eta jaiegunak:** 7:15ean hasita, orduka. Azkena; 20:15.  
**EUSKOTREN:** 943 74 04 42

**MENDAROKO OSPITALA - ELGOIBAR**  
**Astegunak:** 6:55ean hasita, ordi erdiro. Azkena 21:55.  
**Asteburuak eta jaiegunak:** 7:55ean hasita, orduka. Azkena, 21:55.  
**EUSKOTREN:** 943 74 04 42

**SIGMA - ARRIAGA**  
**Astegunak:** 9:25, 11:10, 12:10, 13:10, 18:20, 19:10  
**Larunbat lanegunetan:** 8:00, 11:20, 12:20, 13:20  
**EUSKOTREN:** 943 74 04 42

**ARRIAGA - SIGMA**  
**Astegunak:** 9:55, 11:40, 12:40, 18:10, 19:00  
**Larunbat lanegunetan:** 8:10, 11:10, 12:10, 13:10  
**EUSKOTREN:** 943 74 04 42

**LARUNBAT GAUEKO ZERBITZUAK**  
**EUSKOTREN:** 943 74 04 42

**ELGOIBAR-DEBA**  
 1:05, 2:35, 4:35, 6:05

**DEBA-ELGOIBAR**  
 12:10, 1:55, 3:40, 5:25

**ELGOIBAR-EIBAR**  
 12:25, 2:10, 3:55, 5:40

**EIBAR-ELGOIBAR**  
 1:00, 2:30, 4:30, 6:00

## [ 8 BARIXAKUA ]

**17:30 KIRIBILKA PROGRAMAREN HASIERA**  
 Plaza Handian  
 Antolatzailea: Elgoibarko Izarra K.E.




## [ 9 ZAPATUA ]

**16:30 BOLO TXAPELKETA**  
 Gipuzkoako Hiru Txirilo Bolo Txapelketa (2. jardunaldia)  
 San Rokeko bolatokia

**16:00 LEHEN LAGUNTZEN IKASTAROA**  
 Aubixa baserrian

# SINOPSISIAK

## «Hitch»





## [ 10 DOMEKIA ]

### 11:30 URTEKO BATZAR OROKORRA

Altxolatarren Dorretxea Filatelia Elkartea  
Merkatu Plazako 2. solairuan

## [ 11 ASTELEHENA ]

### 12:30 IMH SARIAK

Makina Erremintaren Institutuko areto nagusian  
Sariak: Ikasle ohi aipagarria;  
2004-05eko ikaslerik onena eta fabrikazio Arloko ikaslea, 2004-05 ikasturtean

## [ 13 EGUAZTENA ]

### 8:15 JUBILATUEN BILTOKIKO TXANGOA

Nora: Suances (Santander)  
Irteera: Plaza Handitik  
Prezioa: 20 euro  
Antolatzailea: Jubilatuen Biltokia

## [ 15 BARIKAKUA ]

### 17:30 KIRIBILKA PROGRAMA

Plaza Handian  
Antolatzailea: Elgoibarko Izarra K.E.

## ZINE KARTELDEGIA

### ELGOIBAR HERRIKO ANTZOKIAN

#### «Hitch (Especialista en ligues)»

8, barixakua: 22:15  
9, zapatua: 19:30-22:15  
10, domekia: 19:30-22:15  
11, astelehena: 22:15

#### «La panda del patio»

10, domekia: 22:15  
«2046» (Z.K)  
14, eguena: 22:15

### EIBAR, UNZAGA

#### «Un canguro super duro»

8, barixakua: 19:30-22:15  
9, zapatua: 17:00-19:30-22:30  
10, domekia: 17:00-19:30-22:30  
11, astelehena: 19:30-22:15  
12, martitzena: 19:30-22:15  
13, eguaztena: 19:30-22:15

### EIBAR, RIALTO

#### «El penalti mas largo del mundo»

8, barixakua: 19:30-22:15  
9, zapatua: 17:00-19:30-22:30  
10, domekia: 17:00-19:30-22:30  
11, astelehena: 19:30-22:15  
12, martitzena: 19:30-22:15  
13, eguaztena: 19:30-22:15

BARREnek ez du gerta litezkeen emanaldien aldaketen erantzukizunik.

Zuzendaria: Andy Tennant.

Antzezleak: Will Smith, Eva Mendes, Kevin James

Alex "Hitch" Hitchensek (Will Smith) lan berezia du: desio duten emakumea lortzen laguntzen die New York-eko hainbat gizonezkeri. Lan arloan arrakasta lortu duten gizonak dira, baina traketsak zeharo amodio kontuetan. Modelo ezagun batetaz maitemindu den kontulari lotsati bati laguntzen ari dela, ordea, maisua beraren trebetasunak kolokan jarriko dituen kazetari atsegin eta ederrarekin egingo du topo. Hitch kazetariak maiteminduko da eta bere irakaspen guztiak jarri beharko ditu praktikan.

### «2046» (Z.K.)



Zuzendaria: Wong kai War

Antzezleak: Tony leung, Gong Li, Takuya Kimura.

Idazlea zen eta etorkizunaren inguruan idazten ari zela uste zuen arren, iraganaz mintzo zen. Bere elaberrian, tren misterioz bat ateratzen zen, noizean behin, 2046. urterantz. Bidaiari guztiek asmo bera zuten: galdutako oroimena berreskuratzea. Wong Kar Wai zuzendariaren hitzetan, "Chinako gobernuak aldaketarik gabeko 50 urte iragarri zituenean hitzemateei buruzko pelikula bat egin behar nuela pentsatu nuen. Film futurista da, baina ez zientzia fikziozko filma".

# Atzera begira



**1955**. urteko argazki hau garaiko Elgoibarko gizartearen "erretiratu" ezinhobea da. Elgoibarko BH Institutua sortu zeneko 50. Urteurrenaren ospakizunetan murgilduta dago aurten eta Bernardo Ezenarro, 1899 eta 1951 artean eskolako zuzendaria izan zenari eskaini zioten omenaldiren batean Plaza Txikian ateratako argazkia izan daitekeela aipatu digute. Ikus daitekeenez garaiko "fuerzas vivas" deiturikoak bildu ziren gisa honetako ekintzetan ohikoa zenez. Herriko estamendu ezberdinak ordezkatzen zituzten, politikari, eliz gizonak eta indar militarren ordezkariek, alegia. Hauekin batera herriko sendagile ospetsuak eta mekanikaren sozeran lagundu zuten irakasle eta zuzendariak ageri dira. Ikus dezagun nortzuk ziren. Ezkerretik eskumara: **Vicente Elkoroiribe, ezezaguna, Angel Aizpitarte, Pedro Gabilondo, Amadeo Aizpitarte, Pedro Jose Arriola, Bernardo Ezenarro, Barrera** (S. Pedro fabrikako ingeniaria), **Jose Eizagirre** (medikua), **Jose Zabala, Antonio Arrillaga** (medikua), **Luis Mari Iriondo, Jose Rezola** (Elgoibarko alkatea), **Jose Juaristi** (parrokoa), **Jose Maria Mugika, Angel Ajubita, Manolo Zabala, Jose Elkoroiribe, ezezaguna** eta **Jesus Rementeria**.



## ESKERTZA

2005eko martxoaren 23an, 88 urte zituela hil zen *Felisa Muguruza Mendikuterena* sendiak, bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



## ESKERTZA


2005eko apirilaren 3an hil zen *Carmen Lopez Navarro* ren seme-alabek, bilobek eta gainerako sendiak, bihotzez eskertzen dituzte jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.





# AZKEN ETXEBIZITZAK salgai

Residencial Mirador  
*Santa Clara*



**Neinor** 

NEINOR **Azkoitia**  
Julio Urquijo Etorbidea, 10  
20.720 AZKOITIA

 **943 852 411 - 943 317 511**

- 3 logelako etxebizitzak eta
- 4 logelako duplexak behekalde estaliarekin
- Terraza eta lorategi handiak. Garaje itxiak. Leku eguzkitsua hegoaldera begira eta bista panoramikoak.

1. bat gehiago izan
2. nire umea ekarri
3. itxaropena



1. lana
2. nire lagunak
3. planeta



1. enplegu iraunkorra
2. etxebizitza
3. familia



1. erantzunak
2. elkarrizketa
3. aurrera



1. ongizatea
2. maialen
3. bakea



Ilusioz begiratzen diogu denok etorkizunari. Horregatik, eskatzen dizut botoa, Apirilaren 17an. Bakea eta zure beharrei erantzungo dien garapena lortuko dituen eta euskal gizarte osoari ongizate hobea ekarriko dion egitasmo bateratuari bultzatzen jarraitzeko. Nahi duzu. Ahal duzu.

# Elkarrekin egingo dugu.

eman botoa



E U Z K O A B E R T Z A L E A K

eusko  
alkartasuna



EAJ  
PNV

